

ANTZERKIA

[Eché mi corazón a freír en la sartén](#)

Erriberiko Antzerki Jaialdia

Tafalla Kulturguneaf

Astelehena /n20.30etan

ARTE DRAMATIKOKO GOI MAILAKO ESKOLEN TOPAKETA

Emakumeez mintzo zaigu lana, bakarrik, triste eta hilda dauden emakumeez.

Maitasunak porrot egiten duela esaten digu, adimenak porrot egiten duela. Elkar suntsitzen dugula esaten digu, koldarkeriaz, elkar umiltzen dugula eta amaieraraino umiltzen gaituztela.

[Así que pasen cinco años](#)

Erriberiko Antzerki Jaialdia

Tafalla Kulturgunea

Asteartea / 20.30etan

ESAD Sevillako testu-interpretazioko eta eszenografiako ikasleek karrera amaierako tailerrerako garatutako lanaren emaitza da lana.

[MADRILGO GAZTEEN ABESBATZA](#)

Erriberiko Antzerki Jaialdia

La Cava. Erriberri

Asteartea | 22.00etan

Madrilgo Gazteen Abesbatzako neska-mutilentzat, bide berri honek musika lagunartean bizitzeko ametsa dakarkie, eta ikusleek, gazteek batik bat, abesbatza-musikaren magian haiekin parte hartzeko ilusioa.

[VECINDARIOS](#)

Erriberiko Antzerki Jaialdia

Kalea. Erriberri

Candelita protagonista ustekabez aterako da goizez, 10:00etatik aurrera, zein arratsaldez, 19:00etatik aurrera.

Argazki-erakusketa baten aurkezpena eta agur-performancea

[LA VIDA ES SUEÑO](#)

Erriberiko Antzerki Jaialdia

Tafalla Kulturguneaf

Asteazkena20.30etan

Ordele-Akitaniako Goi-mailako Antzerki Eskola (Akitania)

Antzerki Klasikoko Konpainia Nazional Gaztearen eta Madrilgo Gazteen

Abesbatzaren bakarlariekinEgilea: Calderón de la Barca

Ikuskizuna frantsesez eta gaztelaniaz da.

Calderón de la Barcaren “La vida es sueño” izenburu unibertsalean oinarritutako ikerlana da. Lotura-eginkizuna egiten duen pertsonaia narratzaile baten bidez (gaztelaniaz),

[Arlequín pulido por el amor](#)

Erriberiko Antzerki Jaialdia

La Cava. Olite

Ostirala / 22.00etan

Maitagarri bat Arlekinez maitemindu, eta bahitu egiten du. Haren edertasunak seduzituta, itsututa geratzen da maitagarria, bere txepeltasunaz ere ohartu gabe. Seduzitu eta maitemintzen saiatzen da, Arlekinen interesak eta gogoak kontuan hartu gabe. Arlekinen eta artzain gazte baten arteko lehen amodiozko sentimenduen indarra eta lañotasuna ere kontuan hartu gabe.

[La Trobairitz Beatriz de Día](#)

Erriberiko Antzerki Jaialdia

Errege Jauregia Erriberri

Ostirala / 20.00etan, 21.00etan

Diako kondesaren eta Olivier Galcerán musikariaren eskutik datoz antzerki-proposamen honetako poesia, dantza, musika eta kantua. Pertsonaia errealak dira biak: musikagile eta olerkari ospetsua XII. mendeko gorte okzitaniarretan, lehena, eta bere laguntzailea gorteetan barnako ibileretan, bigarrena.

[TRES TRISTES TIGRESAS](#)

Erriberiko Antzerki Jaialdia

Errege Jauregia Erriberri

Ostirala, 20.30etan / larunbata, igandea, 21.00etan

Angel Sagüések eta Asun Abadek koordinatutako arte-ekoizpeneko konpainia da ATIKUS.

[Como las cenizas para el fuego](#)

Erriberiko Antzerki Jaialdia

Errege Jauregia. Erriberri

Larunbata, igandea / 20.30etan

Leire Ruiz eta Iratxe García Uriz aktoreen beraien eta Margarita Nafarroakoa eta Joana Albretakoa ama-alaba erreginen artean irudikatutako topaketa da antzerki-pieza labur hau. Margaritaren kontakizun bidez, zer nolako borroka handia egin behar izan zuten mundu maskulino horretan erakusten da, truke-txanpona baino ez baitzen emakumea garai horietan.

[POLVO SERÁN... MAS POLVO ENAMORADO](#)

Erriberiko Antzerki Jaialdia

Errege Jauregia Erriberri

Larunbata, 20.00etan, 21.30etan / Igandea, 20.00etan, 22.00etan

Errege Jauregia. Ataria

Hilobi irekiko eta hilarri itxiko hilerrri batean, mausoleoz eta aingeruz inguraturik, bi ehorzle lanean ari dira. Nekatuta, bata gitarra jotzen ari da, eta bestea oihuka dago, airera. Dama batek erantzun du, agertu berriko dama sufritzaile batek. Errealak al da? Damaren, bihuelaren eta ehorzlearen arteko elkarrizketak badarrai, Quevedo handiaren hitz ederrenak ahoskatuta, haren gai faboritoenetako bati buruz: Heriotza.

[TARTUFO, EL IMPOSTOR](#)

Erriberiko Antzerki Jaialdia

La Cava. Erriberri

Larunbata / 22.00etan

Tartufo: iruzurtia? Pertsonaia bat munstro baten moduan deskribatzen da, eta haren dialektika engainatzailea eta ekintzak soilik erakutsita aurkezten zaigu. Orgonen

etxeko aldartea aldatu egin da Tartufo han bizi denetik.

Comedia Aquilana

Erriberiko Antzerki Jaialdia

La Cava. Erriberri

Igandea / Ostirala / 22.00etan

Istorio honen muina Aquilano ezkutariaren eta Felicina printzesaren, hots, Felicina Bermudo erregearen alabaren arteko maitasuna da. Maitaleak gau batean elkartu, eta Aquilano, maitasunak jota, lorategira erortzen da; Dandario eta Galterio baratzezainek hura aurkitu zuten, eta erregea ohartarazi. Jauregiko medikuek printzesagatiko maitemina diagnostikatzen diote, eta Bermudok haren heriotza agindu nahi du.

BISITAK ETA IBILALDIAK

Pasaporteak ¡Museatu! eta bidaiatu

Museoak eta bildumak

2018/04/20 - 2018/10/20

Bidaia bat prestatzea inoiz ez da hain erraza izan. Pasaporteak hiri eta herri berezietara txango motzak planifikatzea ahalbidetuko dizu eta arte garaikide, arte eder, arkeologia, etnografia eta pertsonaia bereziei buruzko museoetan esperientzia paregabeak bizitzeko aukera izango duzu. Anitzak eta kalitate onekoak diren bildumak eta testigantzak agertzen dituzten museo xarmagarriak. Eta hori guztia, Nafarroatik atera gabe.

Taldean edo familiarekin, bikotearekin edo bakarrik, hamahiru museo eta bilduma hauek zain dituzu haien bilduma eta jardueraz zurekin gozatzeko. Gainera, hiru baino gehiago bisitatu badituzu, sariak lor ditzakezu.

Pasaporteak pertsonala eta/ edo familiarra da. Doakoa da eta hamahiru zentroetan eskuratu daiteke sarreran. Erakunde bakoitzaren zigilua bisita egindakoan eskuratuko da.

Katedraleko klaustroaren lana

Iruñeko katedrala

10.00etan, 11.00etan, 12.00etan,

Bisitak doakoak dira, eta hiru ordu hauetan egiten dira: 10:00, 11:00 eta 12:00etan. Ordubeteko iraupena dute, gutxi gorabehera. 14 urtetik gorakoak izan behar dute bisitariak, eta mugikortasun-arazorik ez izan. Oinetako lau eta erosoak eraman beharko dituzte, obrako aldamiotik ibili beharko baitute.

ERAKUSKETAK

KULTUR

Javier Ciga Echandi: Figurazioa eta esentzia

Bertizko Jauregia

2018/07/20 - 2018/08/20

Zorroztasun teknikoa eta ongi ikasitako ofizioa ditu oinarri bere pinturak. Hortik, Pinturara (maiuskulaz) jotzen du: orekatua, barea, nabarmenkeriarik gabea, non ia genero eta teknika guztiak baliatu baitzituen maisutasun handi-handiz. Parisko

egonalditik, erabilera berriak ekarri zituen Cigak, nahiz eta bere ideal estetikora lerrotu zen nahita, hots, perfekzio errealistara zein pinturaren balio handietara.

[José Velasco Hernández-en Argazkiak \(1897-1974\)](#)

Nafarroako Errege Artxibo Nagusia

2018/07/02 - 2018/08/31

José Velasco Hernández-ek, argazkizalea eta Garraldako maisua izandakoa, XX. mendeko lehen 50 urteetan egin zituen argazkien bilduma txikia da.

Argazki gehienek familia eta ohitura gaiak aurkezten dituzte eta honako ekintzak islatzen dituzte: herriko musika taldea, eskolako belaunaldi desberdinak edo bertako familia zein pertsonai ospetsuak.

Argazki bilduma honen dohaintzaren bortzgarren urteurrena betetzen dela ospatzeko, erakusketa hau uztaila eta abuztua bitartean egongo da ikusgai Nafarroako Artxiboan. Jorge Velasco-ren 17 argazki berezi bilduko ditu eta tamaina handian eskainiko dira.

[Pablo Sarasate-Alberto Huarte: adiskidetasun baten testigantzak.](#)

Nafarroako Errege Artxibo Nagusia

2018/06/18 - 2018/09/14

Nafarroako Errege Artxibo Nagusiak, Pablo Sarasateren eta Alberto Huarteren inguruko erakusketa zabaldu du, Huarte Solchaga familiak utzitako musika agiriak osatuta. Dokumentu horiek, belaunaldiz-belaunaldi babestuak izan dira familiak Iruñeako Kale Nagusian duen etxean, Huarte ikastetxearen egoitza izan zen horretan.

[José Latova. Argazkigintza arkeologikoan 40 urtez](#)

Nafarroako Museoa

2018/06/13 - 2018/09/23

Irailaren 23ra arte egongo da ikusgai argazkilari honen erakusketa zabala, 100 bideo eta argazkiz osatutakoa. Proposamen honek, argazkigintza arkeologikoaren maisu handi hau omentzen du.

José Latovak berak hitzaldi bat eskainiko du gaur bertan, 19:30tan eta Nafarroako Museoa.

Esan bezala, erakusketak Latovaren lana zeharkatzen du, Kultura Ministerioko Arkeologia sailaren zuzendariordea izaten hasi zenetik, bertan argazkilari bezala aritu zen 1976 eta 1989 bitartean, gaur egun arte. Era berean, ezin ahaztu, Latova estatu mailako lan arkeologiko nagusietan aritu izan dela.

[Arma isilak gerra lasaietarako](#)

Oteiza Museoak

2018/06/01 - 2018/09/30

Oteiza Museoak berreskuratu egin du Interpretazioak programa, Imanol Marrodan artistak Altzutzako zentroan egin duen "Arma isilak gerra lasaietarako" erakusketa-proiektuarekin.

Oteizaren obrarekiko topaketa-gune bat sortu nahi duen programako hamargarren interbentzioa da jada. Programa bera museoko bigarren solairuan garatzen da, erakusketa iraunkorrekiko solasean, eta Oteiza Museoak Eguesibarko Udalarekiko elkarlanean produzitu erakusketa-proiektu hau ekainaren 1etik irailaren 30era bitartean garatuko da.

KONFERENTZIAK

Panorama 18

Landarte

Aurizberri

2018/07/26 - 2018/08/04

Leire Urbeltz artistaren eskutik, herri honetako liburutegiak Ekialdeko kulturaren gaineko leiho bat irekiko du haren egile sonatuenetako batzuen bidez. Esperientzia honetan poesia, irakurketa eta eszeni - kazioa erabiliko dira hartarako.

Uztailaren 26tik abuztuaren 4ra

Performancea, poesia eta irakurketa > Leire Urbeltz

KONTZERTUAK

BRUNA SONORA

Kultur

Corella. Foruen plaza

Osteguna / 21.30etan

Denon memorian dauden melodietatik abiatuta (La Tarara, El Vito, Anda Jaleo, el Arbolé...), Bruna Sonora taldeak honako hauek dastatzen dituen musika eskaintzen digu: jazz, musika klasikoa, flamenkoa eta sustrai mediterraneoko soinu-usainak, hala nola klezmer, bereber musika edo turkiar musika.

LA OTRA & LAS LOCAS DEL CO

Kultur

Lizarra. Foruen plaza

Ostirala / 21.00etan

Bere bigarren diskoa, "Creciendo", argitaratzear dago, eta hura ere crowdfundingaren bidez finantzatua da. Gainera, proiektu horretan, emakumez osatutako talde batek - Las locas del co- ere hartuko du parte, eta horiekin batera eginen du bira, formatu akustikoaren birarekin modu paraleloan.

ARDANFUSION

Kultur

Los Arcos. Plaza

Larunbata / 21.00etan

Lau musikaririk osatzen dute taldea. Ahotsa (Montse Zabalza) eta instrumentu-jotzaileak (Francisco Herrero, Joseba Loinaz eta Txema Garcés) aritzen dira taldean, zenbait musika-estilo fusionatu eta berezko bat sortzeko asmoz. Haiek egindako temak joko dituzte, baita bertsoak ere: Brel, Leonard Cohen, Mikel Errazkin, Imanol... Testuek ere badute garrantzia: Mikel Arregi, Lorca, japoniar kulturaren aipuak (Haikuak).

Santa Maria elizara bisita gidatuak

Los Arcos. 17:00etatik 19:00etara / 20' Eliza

Prezioa: 2€

Erreserbak: T. 948 64 00 21 turismo@losarcos.es

TAILERRAK

[Madrilgo Gazteen Abesbatzak La Cava.](#)

Erriberiko Antzerki Jaialdia

La Cava. Erriberri

2018/07/24 | 22.00etan

Madrilgo Gazteen Abesbatzak 2014ko uztailean ekin zion abenturari Donostiako Orfeoi Gazteak gonbidatuta, Donostian bertan elkarrekin eginiko kontzertu batean. Taldea 15 eta 24 urte bitarteko 70 abeslarik osatzen dute; nahiz eta gazteak diren, abeslari "beteranoak" dira jada, elkarrekin denbora luze eramateaz gain, ibilbide luzea egin dute-eta haurren abesbatzetan

[Lanorategien azalpen teknikoa](#)

Huarte zentroa

Astelehena / 16.00etan

Uharte Zentroko laborategietako baliabideak erabiltzen ikasteko oinarrizko lantegiak eginen dira dohainik.

[Arte plastikoei buruzko haurrentzako tailerrak](#)

Nafarroako Museoa

Asteartea, asteazkena, osteguna, ostirala / 11.00etan

"José Latova. Argazkigintza arkeologiko espainiarra 40 urtez" erakusketan oinarrituko dira tailerrak.

5 urtetik gorako hurrei zuzenduta daude udako tailer hauek.

Haurren behaketa eta sorkuntza sustatzea dute helburu erakusketako hainbat lanen eta Nafarroako Museoko arkeologia-funtzen azterketaren bidez, baita ikasleek beraiek sormen-lanak egitea ere.

[Ikerketa proiektuak garatzeko egoitza](#)

Huarte Arte Garaikideko Zentroa

2018/04/30 - 2018/09/30

Komisariotzaren inguruko ikerketa proiektuak garatzeko bi egoitza deialdi luzatzen ditu Uharte Zentroak (bata, lekuko agenteei zuzendua, eta bestea, bertakoak ez direnentzat). Helburua, praktika honen alderdiak Nafarroan zehar barreiatzea da.

[Toisoiaren ebasketa, escape room-ean](#)

Karlismoaren Museoan (Estella-Lizarra)

2018/05/18 - 2018/10/14

Karlismoaren Museoak dei egiten dizue parte hartzera Toisoiaren ebasketa, escape room-ean. Museoen Nazioarteko Egun eta Gauaren kariatara eginen da, 2018ko maiatzaren 18an, eta irekita egonen da 2018ko urriaren 10era arte.

ZINEMA

[European kantatzen](#)

Baluarte (Ganbera Aretoa)

Asteartea / 22.15etan

Zuzendariak: Stanley Donen eta Gene Kelly

Kathy Selden (Debbie Reynolds) aktoregaia ezagutu aurretik, zinema mutuaren idolo

Don Lockwoodek (Gene Kelly) uste zuen dena zeukala: ospea, zortea eta arrakasta. Baina ezagutu zuenean ohartu zen bera zela bere bizitzan benetan falta zena. Zinema soinu-dunaren sorrerarekin, Donek musikalak filmatu nahi zituen Kathyrekin, baina bien artean zinema mutuko erregina Lina Lamont (Jean Hagen) zegoen.

Grease

Baluarteko

Osteguna / 22.15etan

Zuzendaria: Randal Kleiser

1959ko uda. Sandyk (Olivia Newton John) eta Dannyk (John Travolta) uda erromantiko eta zoragarria igaro dute elkarrekin, baina oporrak amaitzean beren bideak bereizi egin dira. Ustekabean, Rydell institutuan topatu dira berriz, baina Dannyren jarrera ez da lehengoa: orain ez da Sandy liluratu zuen mutil xarmagarri eta adeitsua; mutil harroputz eta bihozgabea baizik.

RoofTop Cinema zikloa. Zinea Baluarteko terrazan.

Izarren hiria

Baluarteko

Larunbata / 22.15etan

Zuzendaritza eta gidoia: Damien Chazelle

RoofTop Cinema zikloa. Zinea Baluarteko terrazan.

Proiektzioaren ondoren, swing saioa egongo da Baluarteko areto batean, Pamplona Swing elkartearekin elkarlanean antolatuta.